

## Aditz-jokoa

aren artean dagoen erlazioaren euskarri izatea da. Beste aditzak aditz *predikati-zaile* izan ohi dira.

Sintaxiaren aldetik beste hainbat sailkapen egin daiteke. Adibidez, zer-nolako →konpletiboa eskatzen duten kontutan izanik. Esaterako, *nabi* eta *esan* desberdinak dira alde honetatik. Bestalde, euskaraz, *ari* aditza ametitzen dutenak eta ez dutenak ere badira.

### Aditzari dagozkion kategoriak

a) *Denbora* betidanik izan da aditzari dagozkion kategorietatik nagusiena.

b) →*Aspektua* ere oso garrantzitsua da. Adibidez, *egin du* eta *egiten du* aspektuaz berezten dira.

c) →*Moduak* hiztunak duen jarrerarentala adierazten du.

P. Goenaga

## Aditz-jokoa

*conjugación / conjugaison / conjugation*  
Sin.: KONJUGAZIOA

→Denbora, →modua, →aspektua, →zenbakia, →pertsona eta abarrezko →kategoriak adieraztekoan, nahiz soilik nahiz →laguntzaile batez, →aditz batek molde mordo bat har dezake: *jan dut, jaten zuten, jan lezaketekete, jango nuke*, eta abar. Molde hauen multzoari aditz-jokoa edo konjugazioa deritzo.

Aditz-jokoak, beraz, →*paradigma* bat osatzen du.

Zenbait hizkuntzatan bide beretik jokatzen dira aditz guztiak; beste zenbaitetan, aldiz, hiru, lau, edo hainbeste modutara. Gaztelaniaz, aditz →irregularretatik aparte, jokatzen hiru modu daude: *amar, temer, partir*. Frantsesez beste hiru. Eta abar.

Euskarazko aditz-joko perifrastikoak (laguntzailezkoak, alegia), bi joko-modu dauzka:

*izan* (eta \**edin*)-ena, eta  
*ukan* (eta \**ezan*)-ena.

## Adjektiboa

Aintzinatean, bai Platonek, bai Aristotelek, bai sanskritoaren gramatikariek, logikaren araberako arrazoinez baliatuz, →kategoria berean sartu zituzten adjektiboa eta →aditza; →predikatuaren betekizuna bait dagozkie bie →perpasean.

Estoikoek, berriz, garrantzi handiagoa aitortu zioten morfologiari, eta →izen-kategorian sartu zuten: biak deklinatzen dira.

Filosofo «espekulatiboek», bestalde; eta hauekin batera eskuarki gramatika tradizionalak (eta hau ez da, izan, hein handi batez, «*modi significandi*» edo perpaus-atalen teoria metafisikoa baizik), kategoria independentetzat daukate adjektiboa. →Izenari dagokionez, bai →generoa, bai →zenbakia eta →kasua, derrigorrezkoak dira. Adjektiboari dagokionez, berriz, →komuntadura mailako arazoak dira horiek, azaleko egitura-arazoak, gaurko erara hitz egitekotan: adjektiboak, hitz batez, mugatzen duen izenak dakartzan morfologi ezaugarriak hartzen ditu. Hizkuntza guztiek, halere, ez dute latinak bezala jokatzen alderdi honetatik: alemanieraz ez da komuntadura hori egiten adjektibo predikati-zailearekin; eta euskaraz kasu bakar horretan, eta horretan soil-soilik, gertatzen da horrelakorik: →sintagma guztian →morfemak ez dira behin baizik agertzen.

a) *las casas son blancas*, die Häuser sind weiß (∅), *etxeak zuriak* dira.

b) *las casas blancas*, die Weißen Häuser, *etxe zuriak*.

Beste alde batetik, adjektibo predikati-zaileak ez ditu aditzak berezko dituen ezaugarri morfologikoak: →denbora, →modua, →pertsona, →boza. Hizkuntza askotan, quasi-aditz bat erabiltzen da horretarako (→kopula), adibideetan ikus daitekeenez.

Azaleko egiturak eta sakoneko →egiturak berezteak, bide berriak urratu dizkio eztabaidari. Gramatika Sortzailearen zenbait ordezkari (Lakoff, Rosenbaum, Fillmore), sakoneko egituran aditza eta adjektiboa kategoria bakar eta berbera direla aldarrikatzen du; beste zenbaitek, berriz (Bach...), sakoneko egitura berberan sartzen dituzte izenak, aditzak eta adjektiboak.

Argudio-mordo bien gezurra salatu dute batzuk (→Chomsky-k berak, besteak beste, 1970-ko «Remarks on Nominalization» delakoan); haren muinean uste hau bait datza: lexiko-kategoria oroko-

rrak bilatzea. Gauza bera egin du P. Schachter-ek: «On Syntactic Categories», U.C.L.A., 1973.

→Semantika bidezko saiaketek, dena dela, beti egiten dute topo anitz eragozpenekin. Nolakotasuna zer den bide ziklikotara jo gabe azaltzeak, esate baterako (alegia, adjektiboaren →esanahia askoren ustez), egoerarekiko →aurkakotasunez; baina baita honek ere: ( $\pm$  dinamiko) →ezaugarriak biak azpi-kategorizatzen dituelako, bai adjektiboa, bai aditza (argi vs. eri; jakin vs. kantatu).

Kategori gramatikan (Jespersen, Ajdukiewicz, Bar-Hillel, D.-Lewis, Montague, Bartsch...) kategoria logiko berezitat zedarritzen da adjektiboa. Haren betekizun sintaktikoa hauxe da: →izen →er-kide bati erantsi, eta egitura berri bat egin, berau ere izen-kategoriaren barruan: neska<sub>N</sub> + polita<sub>N/N</sub> → (neska polita)<sub>N</sub>

J. L. Iturriz  
Itz.: Txillardegi

### Adstratua

Ik. SUBSTRATUA; SUPERESTRATUA; ADSTRATUA

### Afasia

Afasia hitzarekin intelektualki pertsona normalen →komunikazio linguistikoa zenbait eragozpen sortzen duen gaixotasuna adierazten da. Kausak fisiologikoak dira, h.d., burumuinen ezkerreko hemisferioan —eskumatiaren kasuan— mintzairaren alderdian gertatutako kalte kortikalak, entzumen, ikusmen eta hizketaren organoekin zer-ikusirik ez dutenak. Kalte horiek →adierazpen eta ulerkuntzan eragiten dute, eta maila eta mota askotakoak izan daitezke; hainbeste non eritasunaren ikertzaileek berek ere, sailkapen bakar bat lortu ez bait dute.

Afasia-motarik ezagunen eta oinarrizkoenak, Henri Hecaen-en arabera, hauek dira: 1. Adierazpen-afasia edo afasia higitzailea, 2. Zentzu-afasia, 3. Broca-ren afasia, 4. Eroalpen-afasia eta 5. Amnesi afasia.

1. Adierazpen-afasiaren kasuan, mezu-igorpena, h.d., →mezu linguistikoen

ekoizpena, oso behaztopatua agertzen da, eta maiz ezin daiteke inolaz ere gerta. Gehienetan eriak ez du hitz bat besterik erabiltzen: Broca-k aztertu zuen kasuan, adibidez, «tan tan tan» zen gaixoak esaten zuen hitz bakarra. Gaixotasunak ez baditu sustraiak oso sarturik, eria halako modu telegrafikoz mintza daiteke, duen →hiztegia oso murrizturik dagoelako eta erabiltzen dituen unitateek aldaketa asko jasaten dutelako. Ulerkuntzak, hasieran izan ezik, ez du kalterik pairatzen, eta irakurketak ere ez; adierazpen idatziak, hala ere, mintzaira mintzatuak dituen oztipo berdinak ditu.

2. Zentzu-afasia, Wernicke-ren afasia izendapenez ere ezagutua, aurrekoaren kontrakoa da. Kasu honetan mezuen harrera da behaztopatua dagoena. Kasurik txarretan eriak ez du ezer ulertzen; eta besteetan, eragozpenak perpaus korapilotsuen ulerkuntzan gertatzen dira bakarrik. Mezu-ekoizpena bere kasako etorriaz egiten da, baina →adiera maiz oso aldaturik egoten da, hitz batzu besteren orde ez erabiltzen bait dira (parafasia).

3. Broca-ren afasia adierazpen-afasia eta zentzu-afasiaren arteko nahas-mahasa da. Kasu hauetan eriak oztipo handiak ditu adierazpenean; mezu-harrera mintzatuaren berriz, ez hainbeste; eta irakurketan are gutxiago.

4. Laugarren afasia-mota hau oso gutxitan gertatzen da, eta adierazpenaren eragozpen askorekin batera, mintzaira mintzatuaren ulerkuntza hobe bat aurkezten du; irakurketa oso gutxi dago behaztopatua, eta idazkera, aitzitik, oso txarra da, kopian izan ezik.

5. Amnesi afasia, hitzak ahazten direnean gertatzen da, hots, zentzu-afasia batetan joera hori nagusi denean. Afasia hau jasaten duten eriek gehienetan ulerkuntza, irakurketa eta idazkera onak dituzte.

Azkenez, mintzairaren kontzepzio →bitar batez, Jakobson-ek eta Halle-k proposatzen duten eredu teorikoa aipa daiteke, haien ustez eri afasikoen mintzairak horixe besterik ez bait du uzten agerian, eriangan →paradigmaren mailako →elkar-